

ZARR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
31n. ZENBAKIA
JORRAILLA
— 1980 —



**Euskalerri Zarra Argiñeta'ko Il-Obiak
(ELORRIO'N)**

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

Gure Legegilleak

Legegilleen auteskundea izan dogu, eta bake-bakean izan be. Gauza pozgarria euskaldunentzat.

Baiña pozgarriagoa ondorenak ikusirik: Alderdi España'tarrak berakadea izan dabe eta gure Erriak bere barruko bizitasuna biztu daua esan lei. Komunismu ta sozialismu internazionalak be- berakadea izan dabe eta esan lei gure erriak bere bidea argiago ikusten daua. Abertzaleak urten dira nagusi, nizta, eritxi ezbarriñak nabarmen agiri. Onein artean be demokraziak izan dau indarrik aundiena.

* * *

GAUZA BARRIA

Euskalerrian iñoz izan ez dogun gauza barria sortu jaku: Parlamentua.

Gernika'ko batzar areek ba-ziran parlamentu-antzekoak, legegilleak beintzat. Baiña ez ziran gauza bardiña. An ez egoan alderdi politikorik. Sasoia be ez zan orretarakoa.

Gaurko erakundea eta euskaldunik geienak onartua dogu ba parlamentu au. Eta lengo erakundean eta oraingoan, bietan, erria da agintari, eta ori da bearrena.

* * *

JAURLARITZA

Parlamentutik jaurlaritza sortuko jaku.

Au ez da gauza barria. Len be izan genduan, guda-aurrean, jaurlaritza Agirre lenengo ta Leizaola gero buru zirala.

Baiña a ez zan parlamentutik sortua, udaletatik baiño.

Dana dala, jaurlaritza daukagu eta mailla baten geure buruaren jabe gera, eta ona emen gure urduri ta larritasuna, gure zalantzak. Zelako almenak izango ete ditu jaurlaritza onek? Emongo ete dautsoe berea dauan, Euskalerria eratzeke bear dauan besteko eskubidea?

Erria dagoan egoeran dagoala, lan ikaragarria izango dau gure jaurlaritza onek. Izango ete dau bear dauan lako almena ta eskubidea? Zelan beteko ete da Araudia?

* * *

ERRI-LAGUNTZA

Jaurlariak erriaren laguntza bear dabe, geurea. Laguntza au ez ba'dabe, ezin egin izango dabe lan egokirik.

Gizonen laguntza: Gure kultura-arloan ezer aurreratu nai ba'dogu, kulturadun gizonen laguntza bear da. Urigintzan egokitasuna lortu bear ba'da, trebeak egin bearko dabe lan. Zenbat olako arazo aitatu geinkezan!

Eta bakoitxaren laguntza. Euskaldun guztiok Euzkadi'ri al dogun neurrian laguntzen ez ba'dautsagu, alperrekoak izango dira erakundeak.

* * *

POZEZ ETA SENDO

Pozeko egunak, ikusten doguzan aurrerapenak ikusten doguzalako. Euskalerria bere jabetasunean, buru-jabetzan, aurrera doa eta aspaldiko berreun urtean galdu diran nortasun-mailla asko lortzen dira.

Sendo jokatu beareko egunak. Lortuari eutsi eta lortubakoak lortu. Erriak aurrera jarraitzea nai ba'dogu, sendotasuna bear dogu, sendotasuna egunero lanean, sendotasuna politikako jokabidean eta sendotasuna geure eskubideak zaintzean.

* * *

LEGEAK ETA EGITEAK

Erriak ba-dau legeen bearritzana, baiña erri-gogoa egitez eta lanez agertu bear da. Lege egokiak bete eta ortik aurrera zuzen eta gogotsu jokatu.

Eldu da garaia? (I)

GORA-BERAK

Ogei ta lau urte oneitan Karakas'en daukat naure bizi-lekua. Emen igaro dodaz urterik onenak, Euzkadi'tik urrin, baiña gaur daukaguzan erreztasun aundiakin, ez dago bitarte aundirik, Euzkadi bert-bertan daukagu eta neke aundi barik Euzkadiratuten naz sarri-sarri.

Ogei ta lau urte oneitan ez dot aiztu neure Aberria. Ba-daukagu emen Euzko-Etxe eder bat, mota guztietako euskaldunak eta euskaldun-zaleak batzen dituan etxea.

Izan genduan garai bat ia astero alkar-izketa gogorrek eta sutuak egiten genduzana, batez be 1959 urtetik orain-tsura arte. Gaur eusko etxe au, baketsu ez ba'da be, erdi baketsu dago. Emen geunkazan iru edo lau ziztrin Euzkadi'ratu ziran ezker, JEL'kideak sortu eben etxe onek JEL'kidetasunean jarraitzen dau.

Bazkide guztiak dauke baimena euren eritxiak agertze-ko ta aurkeztuteko. Ona emen garai aretako eztabaidak, geienetan ganora aundibakoak, barregarriak, aurpegia emon zalako, olako buruko min barik. Gaurko buruko miñak Euzkadi'n daukaguz.

* * *

EUSKADI'RA BEGIRA

Asierak, ondo baiño obeto dakigu, oso mingotsak izaten dira. Eta berbiztuten gagozan lez, gaurko zuzenketak garrantzak izan arren, eldu dala uste dot argi ta garbi gauzak agertzeko garaia.

Gure aldunak ondo baiño obeto egiten dabe lan. Madrid'en ezelako bildur barik azaltzen dabez|gure eskubi-deak... Txalo beroak gure ordezkari ospetsuentzako!

Or dabiltz Madrid'era joan-etorrian eta Euzkadi'ra etorten diranean be ez dautsegu emoten atsedenik: Erririk erri erabilten doguz itzaldiak eta olakoak emoten... Ete dauke lotarako astirik?

* * *

LANAK ONARTZEA

Gure ordezkarien lanak onartu egin bear doguz eta ez dago zer-esanik, zer esanak, eginkizunak, zuzenketak,

jarkiketak, azalketak, eta erakusketak Euzkadi'ren barruan daukaguz.

Garaia eldu da okerrak zuzentzen asteko. Egunetik egunera indartuz goaz, azkenengo batzarretan ikusi al izan dogun lez, egunetik egunera gogortuz goaz eta gaur nagusi gara eta lan sendoak egiteko garaia eldu ta.

* * *

IKASTOLETARA BEGIRA

Euskalerrian ikastolak ugaritu dirala eta asten dagozala, ez dago zalantzarik.

Nik dakidanez era bitara irakasten dabe. Gure euskerea garbi ta argi azaltzen alegindu bear dogu guk erriaren aurrean.

Sabin'darrak garala esaten ba'dogu, egin dagigun al dogun guztia Sabin gure irakaslearen aginduak beteten, ez dagigun ba ontzat artu edozer inuzkeri, ontzat artu baiño len zabaldu dagiguzan gure begiak eta egin dagiodun geure buruari galdera sakona eta goazen Sabin'ek erakutsi euskun bidetik.

* * *

ABERTZALETASUNA

Abertzaleetasuna ez da, beste barik, «Gora Euzkadi Askatuta» deadar egitea.

Alkatasuna eltzen dan egunerako, erriak gerturik egon bear dau. Ez dagigun artu ba, inuzkeritzat ezertxu be.

Tamalgarrria izaten da niretzat abertzale batek «H»'agaz edo «H» barik idaztea ez dala garrantzi aundiko gauzea esatea. «H» au ez da erriak eskatua, Pranko'ren garaian Sabin'en arerioak ezarri dabena baiño.

Artu dagigun gogoz eta sutu gai au bere bide zuzen eta legekoan ipintea, berandu baiño len.

Zelan egin leiken?

Erakundeetako arduradunak barriztu, aldizkarietan eta izparringietan arduradun egokiak ipini eta euskerearen nortasunaren alde al dan guztia egin. Indartsu gagoz, ELDU DA GARAIA?

GORRI'k (KARAKAS'etik)

Ama dago begira
ume txikiari,
bere begitxutan da
argia ugari;
beragandik ezin da
aldendu ezelan,
bertan daua lillura
eten eziñean.

Leiotxu argitaitik
amak ikustean,
umearen barrun dan
bizia su-sutan,
mirarituta guztiz,
itaun dagi berak:
Nigandik urten daua
gizaki ederrak?

Ama ta aurtxoa

Nire albide ez da
ori egitea,
orain dakit nik argi
beste ertilarik
egin daua lan emen,
Jaungoiko maiteak,
misterioz beterik
ikusten dau amak.

GALLASTEGI'k

Neure ume ikustean
mirarizko kutun,
biztuten da sinismen
nire barru-barrun;
naiz ta ni makal izan,
ez-jakin txiroa,
Jaunagaz sortu dot nik
umetxo goxoa.

Olakoak ikusiz
gizonak ez ikus,
Jaungoiko ba-dagola
berbera maitatuz?
Ama baten antzera
guk be jakin daigun,
izadian ikusten
Jainkoren maitasun.

GAZTEDIA BARRIZ

IRAKIÑA

Elizaren eta erriaren etorkizuna gaztedian dagoz batez bere.

Gaztedia indar barri bat da, gure ondoren guri ta indartsu datorrena, gizadiaren eginkizuna jarraitzeko beti gertu dagoana.

Gaztediak irakiten dagoen lapikoaren antza dauka. Barruan, lapikoaren barruko lurrin beroak urteierarik ez ba'dau, lapikoa zulatuz urtetan dau azalera.

Bardin gaztediak, bere indarrari biderik izendetan ez ba'jako.

URIOLEA

Gaztediak ur-aldi aundian ur arkara datorren errearen antza dauka.

Ur orreri urteierarik emoten ez ba'jako, ormak apurturik edo ur arka gañetik urtenaz, aurrera doa, geldi eza eziñik, aurkitzen dauan dana birrinduz.

Bardin gaztediari aurrera bidea emon bearrean, lotuta nai ba'dogu, dana birrinduko dau.

Naiz elizgintzan, naiz errigintzan, gaztediari parte artzen itxiten ez ba'dautsagu, dana etengo dau; bere kemen ta indarra onuragarri izan bearrean oso galgarri izango da.

LEKUA

Elizgintzan bertan be gaztediari sarritan bideak ertsi jakoz.

Beti batzuk agintaritzan, eurak bakarrik dakiela aginduten uste dabenak.

Gazteai leku pizka bat emon bearrean gogortasunean darabillez, eurak gogaitu artean.

Zenbat eliz-gizon gazte erre ditue joan diren urteetan!

Gazteai, geldi-geldi artukizuna emon bear jake, euren elbide ta lanak nagusiakaz batera elizan onurakor izan daitezkan.

IKASI

Paitak uger egiten ikasi dagien, apurka apurka uretan sartu bear dira, bestela iñoiz be ez dabe jakingo uger egiten ta egunen baten, bat-batean errekan sartzen ba'dira, ito egingo dira.

Bardin jaso da elizan batzuetan gaztediagaz.

Ezertara-eskubiderik emoten ez jakelako ez dabe ikasiko iñoiz be agintzen ta eliza zuzentzen, baiña bai sarritan euren indarrari etsi eziñik, zirt eta zart bide txarrak arturik, kalte ikarragarriak egingo ditue.

ERRIAN

Elizak elizgintza onurakor bat egin nai ba'dau abade gazteak aintzakotzat artu bearko ditu, urtetsuen jakituriagaz ta gazteen indarragaz eliz bizi bat izan dagidun.

Bardin jazoten da errigintzan.

Beti batzuk danean agindu nairik gazteai atek itxiten dautseez, gaztearoa igaro arte.

Baiña gazteak ezin bere indar ta albidari eutsi ta iraultzata zalaparta gogorak ataraten ditu, dana triskatuaz eta birrinduaz.

BATERA

Gazteari bideak zabaldu bear jakoz nagusien jakituriagaz eta gaztetasunaren indarragaz errigintza sakon eta onuragarria izan dagidun.

Tamalgarría da gure gogortasun ta arrokeriagaz gaztediaren indarrak ezereztutea.

Ipiñi dagigun poliki-poliki politika goldea gazteen eskuetan, gaztetan lan egiten ikasirik gorengo zuzendari izatera eldu daitezkan.

Gure alegin guztiak gazteak barriz artuta, gizadi mardul bat sortu dagigun.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

Gaztedia

Gaztediak dau bere barruan
indar bizi berezia,
Jaunak emona betidanetik
egin dain mundu obia.
Gaztearoan somatzen dau
bere biotzko barruan,
eziñik ez da nire bizitzan
algutidun ni munduan.

Ames ta Ames gau guztietan,
baiezkor beti zorian,
bere oldozmen bizi argiak
dana lau lau ikustean.

Bizitzak gero baretuko dau
errez ez dala ikusiz,
mundu aldatu une batean
gogor-gogor da ba egiz.

Baina ona da gazte-aroan
olako Ames aundiak,
bete dagien bere bizia
indartzen etorkizunak.

Ames bagako gure gaztedi
ez dala itxaropentsu,
gero ezertxo ez dau egingo
biziko dala kutsutu.

Orain izanik gaztedi dana
ameslari bizi-bizi,
itxaropena euki dagigun
gaizkatuko da gure erri.

Zabal atek gaztediari,
euren argia ez illun,
laguntza eurai biotz-biotzez
argitu dedin gure egun.

Emen gaztea bearrezkoa
obaturteko erria,
indar orregaz euskal errian,
itxaropentsu bizia.

Euren akatsak aaztu eta
euren albide goratu,
orrela laster ezpaibagarik
lo dagon erri suspertu.

Aupa gaztea beti kemen
biotza gartsu beti zutik,
soiña indartsu garbi guri
ez ez bildurrik, ez iñundik,
Jauna da zure goi zaindari,
zuga erriak euren begi,
ez ez kikildu, ez aspertu
jarrai aurrera ernai, bizi.

AMESLARI

E U Z K E R A

Nire barrena galdezka jaukat.
Nire begia begira.
Nire gogo guztia itzarrik
edertasuneen arira.

Bitxi billa nabil baratz zear.
Lili asko izugarri.
danetan euzkerazko larrosa
itz guztien arrigarri.

Larrosa bezela aiz euzkera.
Argi, gorri, eder, garden.
Arantzak dituk ire menpean,
i aiz izkuntzetan guren.

Sagar lorea sagardietan,
euzkera loratzen doa,
sustraiak, loreak ta orriak
askatzen nire gogoa.

Erlea, goizez, doa eztira
euzkal gozotasunera,
euzkeraren ezti billa nabil
itz joskeren arabera.

Oldozpen, olermen, maitasuna
josi nai neukez batera,
argiaren printza ederrenez
mitasunezko euzkera.

Baserrietan dabiltz aotan,
esaera zarrak kortan,
bei gaztearen esne barria
itzez itz edatekotan.

Indarrak ditu esne zuriak
azur sendoak sortzeko,
eta zuk, euzkera mamintsua,
itza Aberria zaintzeko.

Euzkadiko gizon argienak
oiñeztarriak iduri,
buru, biotz ta itzen bidez sortzen
euzkeraren jakituri.

Euzkal olerkia loratu da.
Eder usaiña dario.
Mendietako arantz, oteak,
euzkal mintzaira jario.

Arkaitzean eguzkia urre da.
Euzkeraren itz bakoitza
ibarreko landa nagusian
maitasunezko loratza.

Baratzean dagon larrosea
orrietan murgildurik,
euzkaldunaren itzak iduri
euzkera lora sorturik.

Ederra zara euzkera zarra
argizko gardentasunez,
izarreen urrea daroazu
euzkaldunen maitasunez.

PAULIN

Erensugea

GOSE-EGUNETAN

Ipuir ezagun au, Kortezubi'tarrak euren erara edesten dabe. Orra or azalpena.

Urrin-urricaneo errezuma baten, zazpi buruko erensuge motz bat ei egoan mendi-zuloko leiza naskagarri baten, leiza-zulo eskutua eukalarik.

Gure sugetzar au, jakiña, noizean bein gosetu egiten zan eta orduan bai inguru-minguruetakoz basetxe ta errisketan izugarrizko zalapart eta txilio-otsak entzuten zirala.

Ori be istillu, zarata ta guzti, piztitzar onen menpear jausi oi ziran orok berealaxe iruntziak ziran.

Ez zan txantxetako zera.

ERREGE-ALABEA JANARI

Egunero, zotzak atera ondoren, erensugearen leiza zulora, bere gose-irritsiaren bategarri, norki ba' eroan bear izaten eben, tamalez.

Baiña zoriak zori txarra ekarri lei eta bein baten Erregearen alabearengana jo eban zotzak.

Erregea artagatu egin zan eta ekiñalak egitea otu jakon alaba maitea erensugearen estarri-zulotik gaizkatzeko.

Aginduko ba'eban zeozer, agindu eban berak eta sugetzarra ilko ebanari, bere alaba kutuna ekontzan emon eta bere errezumako ondasunik erdiak eskintzea bururatu jakon.

ZAINTZAILLE SENDOA

Andik laster, sugearen leizazuloan, burdiñezko tresna zorrotz batzuk eroiazala gizon ausart bat agertu zan. Ordurako an egoan erregearen alabea ondo be ondo lotuta.

Len-bait-len, neskatzia askatu eta toki eskier batera eroan eban

Leiza-inguruan zugaitz garai bat egoan eta, maillu batez baliatuz, or-emen, tarteka-tarteka, zugaitzean zulo sakonak egin ondoren, burdiñezko tramankuluak sartu ebazan zuloetan.

Erensugea gosetu zanean, bere zokotik urten eta gizona ikusiaz batera, ba-joian bere atzetik gora zugaitzean.

Ez zan gure gizon adoretua urduritu, eta bide-erdian egeala, izugarrizko zartadea emon eutson mailluaz piztitzarrari.

Maillukadea artuala, tresna zorrotzen artean jausi zan eta burdiñak iztar-iztarririk sartu jakozan ezin-bestean.

MIIN-GABEKO BURUAK

Gizakume bulartsuak, bereala, il eban suge tripatzar denganiña.

Bai pozik geratu be!

Ondoren, zazpi buruetatik miñak atera eta, astiro-astiro, jau-regirantz abiatu zan.

Gerotxoago, mutil gazte bat toki aretara urreraturik, zazpi

burudun sugearen zazpi buruak ebagi ebazan eta erregearengana jo eban.

Onak, suge-craillea bera zalakoan, bere alabea aurkeztu eutson eta zorionak emoten asi.

Baiña alabeak ez eban ezagutzen gaztea eta uneak ordu iruditzen jakozan benetako salbatzaillea etorri arte.

Eldu zan au patxada cnean, bideko ardautegi baten sartu-urtena egin ondoren.

Aurreratu zan erregearengana, eta jauregian gertatzen zana jakiñik, itandu eutson erregearia ezagututen eban min-gabeko bururik.

Orduan konturatu zan bakalduna, zazpi buru areik min gabekoak zirala.

EZTEGUA TA ESPETXEA

Alabeak bere aldetik pozarren ezgutu eban gaizkatzaillea.

Egin ziran ezteguak aundiriko, eta bakaldunak bere esana beteturik, eskiñiko bakalerraren erdia eskiñi eutson.

Gazte gangarraren saria, bestalde, ez ei zan bardiña izan.

Zazpi miñak ez, baiña berea luzeegia izan eban lez, sugeburu, azur eta guzti, espetxera sartu eben.

ARREGI'tar Josu

Sabin - Etxea

GOMUTAKIAK

Albia enparantzan egoan. Abandoko erri-elizaren ondo-ondoan. Etxe berezia zan euzkotarrentzat, bertan ikusi bai eban len-argia Sabin Arana-Goirik.

Seguru asko antxe etxeko baratzen aibat izketaldi izan ebezan Koldobika'k eta Sabin'ek Euzkadi'ri buruz.

Etxe artan entzun zan lenengoz: Euzkatarren Aberria Euzkadi da.

Eta anai biak lanean ari ziran Euzkadi askatzeko asmoz.

* * *

KONDAIRA

Gazte nintzala ezagutu neban eta gazte nintzala azken agurra egin berari Amerikara joan-bearra izan nebanean.

Begiak malkoz eta biotza pilpilka nebazala izan nintzan bertan azken aldiz 1931'grren urtean.

Andik 15 urtera, barriro Euzkadiratzean, laster nintzan bertan etxe-aurrean adi-adi berari begira.

Ezin esan-alako zerbait, indarra, eukan etxe onek abertzaleentzat. Gero zenbat aldiz bere aurretik igarotzean biotz-taupada artu neban!

Biotz-esnale zan. Bizi-indar. Egun baten baiña oin-pean neban biotza. Sinistu be ezin neban. Esan eustenez Sabin-Etxea lurrean zan. 1961'gko abendua zan.

* * *

ARERIOAK

Ez eben lurreratu aizeak, ez urteak, ez euriak, ez lurikareak.

Gizonen, gizon basatien eskuak lurreratu eben.

Betiko etsaiak ziran.

Gorrotiak eraginda Euzkadiren Salbatzallearen jaiot-etxea lurreratzea erabagi eben ankerrak.

Eta erriaren aurrean oroirik be geratu ez

zedin, bere arriak, teillak, olak, egurrak eta dana an-or-emen lurpean sartu ta ostondu zituen.

Manu Egileor aldunak bertako teilla bat nai ebala oroitzat esan eutsan arratsalde baten lengilleen buru zanari.

Andik bi egunera joan zeiteala ta emongo eutsala erantzun eutsan onek.

Bertaratu zanean an ziran bi polizi bere zai.

Komisarian euki eben bi egunetan.

Kalean aurkitu neban baten esan neutsan:

—Kaixio Manu: ederra egin dautzue gero e?

—Eta arritu egiten zara? Ni ez.

* * *

GOGOA

Sabin-Etxea lurreratu eben.

Gure odola irikitan jarri zan, biotz-biotzean zauritu ginduezan-da.

Zorionez baiña etxearen lurra zutik da. Eta zutik bero-bizi bertan Sabinen gogo.

Gogo orren beroak euzkotarren gogoak berotu egin ditu ta berotzen diardu.

Sabinek ereindako azia, landara, zugatz, egin da; zugatz aundi-lerdena ta millak eta millak artzen ditu bere kerizpean.

Berak sortutako Alderdia gogotsu ta indartsu egiri da, fruitu ugariak emoten.

Sabin-Etxea itun-bakar eta ixil agiri da gaur; baiña Sabin-Iraskundea jasoko da bertan laster eta milla ta milla euzkotar bertaratuko. Argia, indarra, adorea, kultura ta jakintza-mintegi izango da.

Sabin-Etxe barria, Euzkadi'ren esnale.

Euzkotarren Aberria Euzkadi da. Askatasun-oiu onek etxe ontatik urten eban. Ots au ez da itzali. Len baiño be indartsuago entzuten da euzkoen biotzetan.

Sabin'en oi! Eman da zabal zazu Euzkadi'n frutua.

GOIRIA

Salerosste Etxekoia

Manuel Dominguez, bere beriko lagunak gareanontzat «Manolo» beste barik, Barruko Salerosste Batzarraren lendakaria dogu.

Aurten Salerosste-ekiñaldi garrantzitsu bat egin dabe Bizkaia'n. Esku artu dabenak 22.000 lagun izan ei dira. Salerosleak guztiak: Dendari arruntak, ez etxe aundietakoak.

Erriaren biotzeraiño eltzea izan da euren jomuga eta lortu dabela deritxot.

* * *

ALKARGOEN LANA

Batez beste 37 alkargo batu dira orretarako eta amar milloi lauerleko-
ren eraketak izan dabez.

Ekiñaldi onen arrakasta, aundia izan da eta aurtengoa bide dala, datorren urterako Euzkadi osoaren barruan luzatzeko asmoa dauke.

Emon dabez lenengo urratsak eta bide onetik emon be.

Olan gerokoan, ekiñaldi onetan parte artuko dabenak 50.000 salerosle inguru izango diralakoan gagoz, aberri guztian.

Erria konturatu da, euren arazo-
txuen argitzeak eta laguntasuna sale-
rosle onein eskuetan egon daitekela eta
«Manolo»'k dirauskunez erri zearen
eta salerosle lagunaren barnekotasuna
geitu ta estutu egin da.

SALEROSTE ETXEKOIA

Dakigunez, salneurriak gorakada
izugarria izan dabe; ez dira ori
ta guzti be gure dendariak errudinak.
Ezta urrik emon be.

* * *

LAGUNTZAILLEAK

Zabalkundea denpora-aldi labur-
laburrean egin ei da. Ille betean
baño ez.

Aurrezki-Kutzak, Bilbo'ko Sal-
erosleak Alkargo batzuk gertatu dabe



Merke-Biltegi edo Ekonomato lege-
letu-gabeak be kalte aundiak egiten
dauskuez.

Oker oneik zuzentzeko, Saleros-
te - Lege barri baten preminan
gagoz.

* * *

ONURAK

Onura asko aurkitu geinkez.

«Manolo»'ren iritxiz, salmenta ba-
koitxaren berezitasuna izan leiteke
lenengoa.

Erosleak ontaz konturatzen asi
dira. Gaurkotasuna saldu oi dogu,
dirasuku, berak, ez geiegikeria. Orre-
tarako ibillaldiak egiten doguz, naiz
Leterriko Uriburu nagusietara naiz
atzerrietako erakusketa ospetsuetara.

Beti idoro geinkez zer baliotsu
ta ez-ezagun edo barri batzuk eros-
leen atsegingarri eta sakelentzat be
guztiz mingarriak ez. diranak.

Gure zergaitik eta jomuga be-
reziak oneik dira: Al danik mer-
keen saldu eta erosleen gogozko gauza
batzuk, karuagoak izanda be, eu-
rai aukeramen osoz aurkeztu ta es-
kintzea.

Amaitzeko Bilbo'ko Salerosste-Ba-
tzak aldizkari bat, bi-illerokoa asie-
ran, argitaratzea erabagi dau.

Europa'ko Azoka'ra sartzeko be,
lenengo oinkadak gertatzen gabiltzala
deritxogu. Gauzak asiera bear dabe.
Eta aundi ta txikiak bizi bear
dogu.

Gu, erriaren eta salerosleen la-
guntzak bide dirala, asi gara, artu
dogu arnas bizikorra.

Ea ba, ez gelditu. Eta giroa,
gure Euskalerrria bear gorrian da-
gonez, guztiontzat, baiña beraren-
tzat batez be, itxaropentsua izan
daitela.

A'tar-jo'k

dan-dana. Bezuzak, sariak, jai-
aldiak-eta, berezoen alde eskiñiaz.

Zelan otu jaken onelako artu-
emonak erosleakaz izatea itandu or-
duko, bere erantzuna izan da Pa-
ris'ko Salerosste-Batzak be, onen an-
tzeko eginkizunak ba-dagizala.

Geure elburua izan da, darrai,
bertako salerosste-tokiai laguntasuna
eskintzea. Guztioz ondo be ondo
dakigunez, jaramonik ezaga-tik ta
gaur eguneko kinka edo larri-aldi
zoritxarrekoagaitik, bear-izan ikara-
garrian aurkitzen dira gure saleros-
lerik geienak.

* * *

ERAGOZPENAK

Lenengo ta bein, or daukaguz
egunero gure begien aurrean, kaleko
saltzailleak (ez da nire gogoia euren
bizitzak epaitzea) euren artean ba-
tzuk ortik ara dabiltzanak eta geienak
ain zuur toki jentetsu berezietan
kokatuten diranak.

Zergak banatzean be guk daroagu
zatirik txarrena eta eder-izti edo
estetikaren ikuspegitik, Bilbo'ko kale
nabarmen eta gora aundikoai, esa-
terako Bide Nagusiari ta Areatza'ko
ingurui, ez dautsee bear daben
rudi ta garbitasun-usain alai ta
gogotsua emoten.

Azkue'ri Jarraitzen (II)

G		J	
Gandu	= <i>Andituera</i> . Ampolla, hinchazón. <i>Azkue'k</i> : catarata, bruma, paño de los cristales, aureola, desbrozar el lino, hierba mala.	Jirauletara	= <i>Batekoz bestera</i> . Al revés.
Gantzeru	= <i>Lapurra</i> . <i>Gantz ataratzallea</i> . Sacamantecas, bandido.	Kabillara	K
Garagarra egin	= <i>Astoa beian</i> , arrastaka ibili. Revolverse en el suelo.	Kakota	= <i>Txoria</i> . <i>Gabiraia</i> . Gavilán.
Garduera	= <i>Kardua</i> . Cardo dulce. <i>Azkue'k</i> : kardabera.	Kakotu	= <i>Moskorra</i> . Borrachera.
Geuna	= <i>Ezne egosiaren gaiña</i> . Nata de la leche.	Kaixarra	= <i>Moskortu</i> . <i>Žikindu</i> . Emborracharse.
Goaldi	= <i>Gooldia</i> . Alga marina. <i>Azkue'k</i> : ooldi.	Kala	= <i>Kaio arra</i> . <i>Itxas txoria</i> . Gaviota macho.
Bogapen	= <i>Pentsamentu</i> . Pensamiento. (<i>Txomin Agirre'k erabiltzen eban</i>).		= <i>Arrantza tokia</i> . Cala, Caladero.
Gosekil	= <i>Gosez bizi dana</i> . Hambriento. (<i>Akesolo'k, Azkue'ren geigarrian: Gosekilla geseak illa</i>).		<i>Arrantzalari artean kalak, arrain tokiak, askori emon izan dautse nortasun bat. Ala:</i>
Grak eta blast	= <i>Joko bateko esaera</i> . Acierto y tumbada. Dale y fuera. (Juego en que se pone un cuchillo metido en tierra, sobre una raya y se arrojan monedas sobre el mismo, siendo el premio mayor el dar al cuchillo y tirarle. Si solamente se toca, se dice: <i>grak</i>).		<i>Andra kala</i> . <i>Arrain kala</i> . <i>Besigu kala</i> . <i>Kostarren kala</i> . <i>Justo kala</i> . (<i>Gaminitz'en</i>). <i>Motriku kala</i> . <i>Tribis kala</i> . (<i>Izaro</i>). <i>Kala beuna</i> = Plomo para caladeros.
Gurma	= <i>Bruma</i> . <i>Laiñoa</i> . Niebla.	Kepireska	<i>Kala gizona</i> = Buen pescador.
	I	Kepireskaku	<i>Kala pitxi</i> = Mariposa.
Ingelesian	= <i>Ume jokua</i> . <i>Diruak marra batera jaurtiten</i> . Juego de niños, con monedas, a tirar sobre una raya.		<i>Kala potin</i> = Calera.
Inka	= <i>Moskortu</i> . Emborracharse.	Killoi	<i>Kala txori</i> = Gaviota.
Inka	= <i>Orma baten irarri</i> . Fijar, pegar.	Kinkilloi	= <i>Umeen jokoa</i> , <i>zer eskatuka</i> . Juego de cara y cruz.
Iparra batu	= <i>Dardaraka jarri</i> . Pillar tembleque.	Kinkida	= <i>Zer eskatuko ibilteko erabiltzen dan posporo kutxaren azala</i> . Parte grabada de la cajetilla de cerillas que sirve para jugar a cara y cruz.
Ipartu	= <i>Dardaraka jarri</i> . Tartamudear por exceso de vino, emoción, etc.	Kirrixka	= <i>Un quillón</i> . = <i>Copuru arrigarri bat</i> . Cantidad exorbitante.
Ipitxa kalia	= <i>Kale txikia</i> . (<i>Likona torrearen aurrean</i>) Calle pequeña.	Koasta	= <i>Žikinkeria</i> . Sociedad. Melopea.
Itsu itsuka	= <i>Joko bat</i> . <i>Edo gertaera bat</i> . A ciegos.		= <i>Karramaru baltz txikia</i> . Cangrejo negro de los puertos.
Itxasate	= <i>Itxasorako sarrera edo arteeta</i> . Barra, antrada al mar. (<i>Tx. Agirre'k erabiltzen dau</i>).	Kokon	<i>Azkue habla de «crujidos», etc.</i>
Itxasote	= <i>Itxasoratze</i> . Salida a faenar.	Korren-Korrenka	= <i>Ontziei, gogortzeko, atze ta aurrean ipinten yakoen burdin edo egurra</i> . Codaste.
Itxastriku	= <i>Itxasoko kirikixua</i> . Erizo de mar.	Kortzeleko mamuak	= <i>Trapalotea</i> . Gordinflón.
Itxasbarru	= <i>Itxas zabalean sartu ondoren</i> . Mar adentro.		= <i>Ume jokoa</i> . Juego de niños.
Itxasbide	= <i>Itxasoan oi dan bide, zuzenbidea</i> . Ruta marina.	Koskan erosi saldu	= <i>Ondarroa'ko eleiz inguruan dagozan trudiak</i> . Fantasmas de la cornisa parroquial de Ondárroa.
Itxasertz	= <i>Itxas egala</i> . Costa.		= <i>Ordain orde, makilla baten egiten dan koska ezaugarri dala erosi edo saltzea</i> . Comprar o vender fiado.
		Labako	L
		Labamin	= <i>Okiñei, ogigiñei deitura</i> . Panadero. De la panadería.
		Labatai	= <i>Ogia jagitekoa</i> . Levadura.
		Lantxe	= <i>Labako atadia</i> . Portal del horno.
			= <i>Euri mea, laiñoa lakoa</i> . Especie de neblina. Lluvia débil.

Laskitu = *Des-egin.*
Desmenuzar, deshacer.
Lastua atara = *Gogor jo.*
Pegar fuerte.
Latida = *Arrantzaliak erabilten daben bela bat.*
Vela de embarcación.
Letiñeko Palua = *Latiñeko belaren aga.*
Mástil para la vela latina.
Lazka = *Zendu, lapurtu.*
Sisar, quitar un poco a escondidas.

M

Malluki = *Marrubia.* — *Mallu txikia.*
Fresa. — Martillo pequeño
Mandazketa = *Mandoak ura edateko askak.*
Abrevaderos.
Manjuba = *Arrain moltsoa.*
Bolsa de pescado.
Mankal jasote = *Ille azken eleizakoa.*
Ceremonia religiosa a la terminación del luto parroquial por un difunto.
Manu egon = *Estar flojo, no tirante.*
Marmitako = *Atuna bitarteko dala egiten dan lapi-kokoa.*
Cocido a base de bonito, patatas, etc., típico de los pescadores.
Mengeldu = *Bigundu, makaldu.*
Debilitarse.
Mongoliño = *Magurio.*
Caracolillo. Carraquela.
Morkona = *Andre itxusi, zikin.*
Mujer sucia, grosera.
Morkondu = *Baldartu, zikindu.*
Abandonarse, caer en suciedad.
Muskar = *Ondo, kirten. Aza muskar.*
La parte del tallo de una col, berza, etc.
Mutxarri = *Arrain txiki bat.*
Pez sin sangre, pequeñito y débil.
Azkue: *Mutxarrerri.*

O

Obako = *Joko bat.*
Un juego.
Obildu = *Batu.*
Ovillar.
Ogi-ogi = *Labamiñaz erabili ta jaso gabeko ogikiñaren zatia.*
Masa sin cocer de harina tratada con levadura y sin fermentar.
Olezko popia = *Jezarleku baten azpia, anka barik.*
Base de una silla, que las rederas ponen sobre el suelo para sentarse.
Olezko popia = *Berez otza dan neskati bat, iku u eginda be aldatzen ez dana.*
Mujer temperamentalmente fría y que no hace caso de determinadas caricias.
Olezko oñetakuak = *Olezko traskuak.*
Choclos de madera.
Olona = *Belakia.*
Tejido para velamen.
Azkue: *Olana.*
Ondar azpiko = *Arraiña.*
Bai eta ondartzetan ibiltan dan zomorroa, ikutu egin ezkeron min andia emoten dabena.
Pez similar al traquino. También insecto muy dañino de las playas
Ooldi = *Yooldia. Itxas bedarkia.*
Alga marina.
Otanti = *Arpegi andi.*
Carota.
Otzakil = *Otzak errez kikilduten dabena.*

Ozkil

Pael

Papuak

Peazu

Pizketa

Pla

Pla-pla

Popapeixu Popapoxu Potozorri

Prakaman

Sagar ume txikin

Sapalan

Sare mamiñak

Sare papuak

Sarramuskada

Sarrazkio

Sartu urtenak

Sazkildu

Serotetxe

Sidol

Sirol Sorgintsua

Sorgin ume

Sota patroia

Suezta

Suge landara

Susunkorda

Friolero.

(Akesolo'k = frío lento).

= *Otzakil, bai eta nastetsu, setatsu edo antzeko.*

Azkue le da significado de friático, enclenque, persona apocada, pero también se llama así al individuo ensimismado, terco.

P

= *Txalopetako beia bardintzeko ipinten dan ola.*

Panel para igualar la curvatura del fondo de una embarcación.

= *Pautsak, okots ordeak.*

Papos.

Azkue = mejilla, carrillo kerida, papada de cerdo).

= *Andi. Ori da gizon peazua!*

Grande.

= *Erderazko pedazotik etorriko da.*

= *Zatitxo bat.*

Pedacito.

= *Busti-busti egiña.*

Todo mojado.

= *Zabal zabalik.*

Abierto. Anchoas pla-pla, abiertas rebozadas.

= *Žirin, geldi eziña.*

= Inquieto.

= *Txatar, estu, gizon txikia.*

Ladilla. Hombre apurado, fastidioso.

= *Gizon lodi, prakazabala.*

Regordete, abierto, de pantalones anchos.

S

= *Sagarra jan ondoren geratzen dan ondakiña.*

Residuo de la manzana. Quizá degeneración de «Muskiña», pero en Ondárroa se dice así.

= *Azpi lana.*

Trabajo de engaño.

= *Sare zatiak.*

Pedazos gruesos de la red.

= *Sare geigarriak.*

Añadidos de la red.

= *Atzamarrekin urratzeko egitada.*

Acción de refundir.

= *Arrerako asarrea agertu.*

Amenazar de entrada.

= *Ikustaldi laburrak.*

Visita rápida. Entrar y salir.

= *Txiki txiki egin.*

Dejar una cosa hecha birra.

= *Eleiz zaintzallearen etxea.*

Casa de la serora.

= *Žirikatzalle, adar jotzalle.*

Tentador. Bromista.

= *Tentador. Bromista.*

= *Sorgiñen egitada.*

Brujería.

= *Kajatik ekarritako umea.*

Niño de la inclusa.

= *Ontzi bateko patroiazen ordeko.*

Patrón ayudante.

= *Uretako kapela.*

Sombrero impermeable para el mar.

= *Ormetan ibiltan dan sugekia.*

Lagartija.

= *Ezegaz konturatu barik.*

Pensando en babia.

(Jarraitzeko)

Otsoa Artzain

Ba-zan, bein batean, otso bat gure mendietan. Oso zarra zan eta zangoak uzkuratzen eta ortzak erortzen asia...

Iñoz eiztari ona izana... Zenbat ardi ta bildots ez ebazan narrutu ta jan?

Zartzeak baiña gauza onik ez! Eta an egoan, gaixoa, goseak arrailduta, azurrak bere narru legorrenen barrutik agerian.

AMESETAN

Eta asma ta asmetan asi zan, zelan bildots bat, atrapau ta jan...

Baiña, otsoa urriñetik ikusi baizen arin, igesi joiazan ardiak eta bildotsak. Ez eutsoen, bestalde, artzaiñak eta txakurrak artaldegana urreratzen be izten.

Zer egin...?

Artalde guztia lo egoan egun batez: ardiak abaroan lo, artzaiña txabolan lo, txakurra atarian lo, danak lo..., urreratzen da otso ori astiro-astiro... Eta bere soiñekoak, oiñetakoak eta makilla kentzen dautsoz artzain lotiari.

OTSOAREN POZA

Artzaiñaren aparramantarrak bere soiñean jantzi, eta atzeko oin bien gaiñean zutunik, eta aurreko bi besoz makillari loturik gizontxo biurturik, zirautsan bere buruari:

—Zer ete dan, buruz jokatzea! Eta zelan ez ete jake beste orrenbeste otu neurere senideai..., ez dala, ez, artzain biurtzea baiño gauza oba ta onuragarriagorik...!

Poz-esnetan egoan geure otso trebea..., eta bere ezpain zerbela milikatzen ebezan eta eskuko makilla iñarrosten...

—Naiko joat eguneko ardi gizen batzerautsen bere buruari, loxinka.

OTSOAREN ORRUA

Eta gauzak ondo baiño obeto egitearren..., ona non bururatzen jakon, artzaiñak lez txixtuka astea...

Eta autsak zabalduz, eta eztarri-zuloa estutuz..., artzaiñaren txistu mee-eztia-ren orde, orru izugarri bat egin eban. Eta inguruko mendi tontorrak astindu ebazan, zugatzak iñarrosi, belardiak dardarazi...

Ardiak eta artzaiña ta txakurra euren lotatik itxartuta, asi zan artzaiña esaten:

—Zer arraio da au?

Gero bere burua billusik ikusi, ta:

—Zer deabrukeri da au?

Ingurura begira jarrita, orra or artzain barri bat bere inguruan. Obeto begiratu baiña, eta or ikusten dautso otsoari, kapusaiaren azpitik, aren buztan lodia.

OTSOAK ANKAK ARIN

Jauzi aren gaiñera, kendu areri makilla atxamarretatik, eta asi zan oiuka:

—Uia..., uia..., txakurra, ona bizkor!

Eta or asten jako, txakurra etorri bi-tartean, otsoari makilka, zinpi-zanpa, gutiz birrinduta itzi arte.

Ardiak iges egin eben larrara...

Eta txakurrak zaungaka ta klisk-klask aginka..., baso baltzera bidaldu eban otso maltzurra, odol jarioka.

ESTONBA'tar Mañuel

PORTUGALETE'KO BATZOKIA

TOKI EDERRA

Lurraldeari begiratu ezkerre, Bizkai'ko erririk polit eta zoragarrieneraiko bat dogu Portugalete.

Nerbion ibaiaren ur-agoaren ezkerrean agertzen jaku dotore.

Amar edo amabi neurkin (metro) itxasoa baiño goragotik begiratu ezkerre, iruditzen leiken ikuspegiarik lilluragarriena ikusten da.

ZUBIA

Joan zan mendearen azken-urteetan egindako dindilizka dagon zubi erabilkorra ikusten da urrean eta beronek ibaiertz batetik bestera igaroten dau jentea.

Zalantza barik berau izango dogu Euzkadi'n eta Erdi-Ugarte guztian bereizkuntzarik aundienetarikoa bat.

Baiña, dana esateko, zubi au ez da orain irabazgarri, ez da, ainbeste gizatalde erroteko onuragarri eta, dindilizka daukagun zubi olerkitsu au itzi eta beste bide trebeago bat billatu bearko da, garraio-lana egiteko.

ENDAK

Portugalete'ko biztanleak enda-aldeetik nastatuak dira.

Emen bizi dira Euzkadi, Erdi-Ugarte eta beste alde askotatik etorritako gizaldrak, Europa'ko Laterri batzutatik etorriak be bai.

Lagunarte ezbardin oneik, izakeraz, taiuz, tankeraz askotarikoa dan jentetza ta gizon moltzoa osotzen dabe.

Portugalete'tarrak odol-geldikoak eta ardurabakoak dirala esaten dabe, eta esku-zabalak dira.

OSPETSUAK

Emen sortua dogu Zunzunegi nobela-idazle ospetsua, eta eguerdietan urrutikuskiñean agertzen jakun eta ikusten dogun Mari Krutz neskatilla trebea be emengoa dogu.

EUSKEREAK

Tamalez, Portugalete'n, naizta Bizkai'ko erria izan, Nerbion'en ezkerrean (autrigoen artean) jazo dan lez, euskerea antxiñatik galduta dago.

Bear ba'da Gaztelerriko eleizbarrutia zan valpuesta'koan sartuta egoalako izan leiteke.

Dana dala, abertzale asko dagoz emen eta euskera ikasi gura dabe.

BATZOKIA

Abertzale ta euskaltzale diran lez, batzoki aundi ta eder bat dauke.

Batzoki onen sortzea, taiua, goraberak eta kondairea agertu gura dautzueguz.

AKETXE'GAZ

Idazkortza ta orri zuria eskuan doguzala, maitxu baten aurrean, Aketxe'tar Julen jaunari itxaroten gagoz. Bakar-miñez gogoratzen dogun Euzkadi'ko lenengo Lendakariaren, Agirre'tar Joseba Andoni'ren emaztearen lengusua dogu berau, benetako bizkaitarra.

Let.: Aketxe jauna, egingo daustazu, labur labur, batzoki onen istoria?

Ak.: Ba-dira emen nik baiño obeto Batzokiaren barriak emon leikeezenak, baiña zeregin ori neuk betetea nai ba'dozu, emen naukazu zure serbitzaille.


ASIERA

Let.: Mesedez, noz izan zan eta zelan Batzoki onen asierea edo sortzea?

Ak.: 1934'garren urtean irasi eben abertzale-talde batzuk. «Gure Kabia» ipiñi eutsen izena. Arerioak kendu ez egien, Izenbako Lagundi edo «Sociedad Anónima» lez agertzen zan.

Let.: Aldi orretan, Agirre Lendakaria iñoz etorri eta zan ona?

Ak.: Bai eta sarritan etorri be. Erri onetan sarritan egoten zan eta emengoa artu eban bere emaztea be, Miren Zabala gure senidea.



Let.: Eta orain zelan doa batzoki au?

Ak.: Orain be Izenbako Lagundi lez jarraitzen dau. Lendiko eragille Lopez Kanpo'tar Tomas dala.

Berreño ta Lekeitio'ko Batzokiak emengo onen aldi batekoak dira, baiña Batzoki au Berreño'koaren urrengo, aundiena ta ederrena da.

Lan Etxe-barrena abertzaleen kooperatiba edo alkargoa zan. Orain Batzokiko Biltegia. Alkargoaren gainean, lenengo maillan, emakumeen tokia egoan eta orain berbaldietarako ta batzarretarako erabiltzen da. Ikastolak be emen dagoz.

Bigarren maillan areto edo gela nagusi bat egoan len, auxa zan batzokia. Emen dago idazkaritza ta idaztegi polita dan tokia.

EZAUGARRIAK

Nik igon neban toki onetara eta bere edertasuna, apaintasun eta egokitasuna ikusita, poztasun aundia artu neban.

Idazkaritza ta idaztegi onetan ikusi nebazan ZER onen zenbaki guztiak polito batuta, eta Sabin'en eta Joseba Andoni'ren argazkiak.

Asti aundirik be ez neukan-eta, irugarren maillara ez neban igon, orregaitik itaundu neutsan Aketxe jaunari:

Let.: Irugarren mailla ori zertarako dozue?

Ak.: Len sendi abertzale birentzat bizitokiak ziran. Orain sendi bat bizi da: Gure Abia'ren arduradunarena.

Izenbako lagundi au, iparralderantz dagoan beste etxalar aundi baten jabe da. Ikastolan euskerazko ikas-aldiak be emoten dira, eta orretarako Egiluze'k bere laguntza emoten dauksu. Irakasten dan euskerea, Bizkaiera da.


EKIN

Geiago barik amaitu genduan alkar-izketea eta etxe eder eta atsegin onetara egindako ikustaldia.

Ba-dago Portugalete'n non eta zertan lan egin, aberri ta izkuntza-arloan eta emengo abertzaleak lan ori gogotsu egingo dabelako itxaropena ba-daukagu.

LETONA'k

BILL, RICK, RENE



ERRIA BEGIRA

Bill, Rick eta René iru gazte dira. Alboko argazkian agertzen diranean, astebete barru abade izateko ustean dagoz.

Eurak agertu dauskue bizibide au zergaitik artu daben.

Batek diño: «Nire abadetzea bakantasun pozgarri lez ikusi dabe adiskideak».

Besteak: «Mundu bien artean lotuta ikusten nabe-lako, mindu egiten dira».

Irugarrenak: «Nire erritarrak bizitza barri onetan zelan jokatu ete dodan dagoz».

* * *

ERRIAREN AURREAN

Bill'ek ogei ta zapi urte daukaz, Richard'ek ogei ta bost eta René'k ogei ta sei.

Irurak pasiotarren taldera sartu dira eta abade egin. Abadetzea artu baiño aste bat lenago, New York' en azaldu dabez euren bizibideko zeregiñak.

* * *

SENIDEEN ERITXIA

Euren senitarteko askok ez ekien zer pentsau. Gizon gazte ta trebetsu oneik, gizartean aberastu eikezan, onuratsu ta ospetsu izan be bai; baiña aukerapen ori zorakeria zala esan arren, biotz-ikaraz egozan. Ori diño Richard'ek.

«Senideen pentsakerea agertzea ez da gauza erre-za», diño René'k.

Bill'ek, «pozik eta bizkor nabil» diño.

* * *

ERDI-MAILAKOAK

Irurak dira gizartean, erdi-maillakoak.

Rick Frechette, Connecticut'ekoa, bere sendiko sei naba-arreben artean bigarrena.

Bill Cotter, Massachusetts'ekoa, bare ta neurriduna, abots mardulez agertzen ditu bere asmoak. Anai bi daukoz.

René Bouchard, Southwick'ekoa, iru neba-arreben artean zarrena.

Irurak dira abeslariak, pianu ta organu-jotzailleak eta musikariak.

* * *

SENDIKO ARAZOA

Irurak diño euren sendiak ez dituala abadetza bultzatu, baiña erabagi ori artu ebenean sendiak eroan-kor agertu zirala onartzeko: «Nik ori nai nebala ikusi-rik, ez eben eragozpenik ipiñi» diño Bill'ek.

«Nik auxe esan neuntsen —diño René'k—: Ez daki-zue irlandar ama bakoitza semeren bat abade izan daiten itxaroten eta otoitz egiten dagoala?».

—«Gizataldeak norbaitegan abade dalako uste ona artzen dauanean, abadearen bizitzea arduraz eta bene-tako jakabidez beteten da» —diño Rick'ek.

* * *

ARTU-EMONAK

Iruren ustez, urko lagunaren ardurea daukan aba-deak, aren bizitzako jazoera nagusietara dauko sarre-rea: Jaiotzetako poztasunean, eriotzako negarrean, samintasunetan, gaiso-aldietan... eta beti izaten dau laguntza ta berba egokia emoteko erea.

* * *

GERTAKIZUNAK

Bost urtetan bizi izan dira gazte oneik pasiotarra-kaz.

Lenengo «nobizio» edo lekaide barri lez, urtebete; gero txirotasun, garbitasun, eta menpetasun-ziñak eta alkargoan biziteko agindua.

Orren ostean lau urtetan teologia ikasten eta abade-lanetarako gertatzen. Aldi onetan Thomas Merton'en «Zazpi maillako mendia» irakurri eben eta biotz ikara aundia asmau eben.

* * *

BIZIBIDE BARRIA

Pasiotarren bizibidea, maitekorra aurkitu eben eta alkargoa maite eben: «Zalegarri da ogei ta lau urtetik larogei urtera bitarteko diranen arteko bizibide au: guztiak euren arloetan zein-geiagoka lanean. Mundurako ikuspegi bardiña, alkar-izketa eta jolas-aldi egokiak...»

* * *

ALDATZ-GORA

Ba-dira gauza gatzak eta latzak be: iritxi bardiña lortzeko gaiztasuna, artzain-laneko jokabideak, gai-soen lanerako gertatu-bearra, Gogoak Jainkaogana eta betiko bizitzara urreratzeko lana, gizarte-arazoe-tan txi-roen zeregiñak, gaiso osatu-eziña daukenakazko alkar-izketak, olako uneetan Jesus'en nekaldia gogo-ratzea eta adorea emotea...

EGILUZE'K

Lezo'tar Blas, Itsas Gizona

Colonia'ko «Cartagena de Indias» Ameriketako kairik ederrena zan antziña. Goi ta beko Ameriketa erdi-erdian: an batzen ziran emendik-ara ta andik-ona joan-etorten ziran saleroskiak.

Itzaleko saleroskia! Ameriketako zidar, urre ta onkailluak; eta emengo guztitariko tresna ta izkilluak. Ori zala-ta, mundu guztiko itsas, lapurrak zist ta zast, listorak bailiran.

1741-garreneko eraso izan zan gogorrena. An eta orduan egin zan izen aundiko gure Lezo, itasburu ospetsua.

MARIÑEL

Gazterik itsasoratu zan. Amasei urtetan izan eban bere biziko lenengo eraso. An galdu eban bere ezkerreko iztarra, eta «alferez» maillara igon eban agintariak, aren ausardi ta adoreagaitik.

Urrengo baten, ingeles ontzia bat ondatu, eta beste bi atxitu ebazala-ta, «teniente» egin eban. Andik laster, bere ontziak arerioz inguraturik ikusirik, areitako batzuei su emon, eta ango su ta kearen artean jareti urten zan, arerioen eskuetan ontzirik tizi barik.

Prantziko Tolonen ikusten dogu urrengo urtean, burruka gogorrean beti. Ango eraso batean ezkerreko begia galdu, ta «kapitan» egiten dabe; 23 urte eukazan orduan. Kapitan zalarik, Bartzelonako erasoan esku artu eban. Esku artu ta besoa galdu; burruka gogorrean ebillela, bala gaizto batek ondatu eutson eskumako besoa.

ITSAS-BURU

36 urtegaz joan zan Ameriketara itsas-buru lez, an ebiltzan itsaslapurren aurka jokatzeko. Bai ondo jokatu be, laster alde egin eban inguruko ingeles ta hollandar itsas-purrak.

Andik arin, Aprikako Oran deritxon lurraldean dogu. Turkotarren menpean egoan uri ederra. Eta egun batzuen ondoren eskuratu eban uria ta kaia. Turkotarrak ez amor emon nai, ta sekulako ontzi pilloa bidaldu eban, uri ori barriro eureganatzeko asmotan.

60 kañoedun ontzia zan danen buru, eta aren aurka abiatu zan gure Lezo, eta ez zan geratu a ta aren inguruko ontzi guztiak ondatu arte. Eta an ibilli zan gerora be bi illabetetan, ango itsasoko uretan arerioen itsasontzi guztiak uxatzen.

«CARTAGENA DE INDIAS»

Andik urte bira Ameriketaratu zan barriro. Zer dala-ta? Ezin ingelsak itsaslapurrak bakarrik ango

aberaskiaz jabetu, ta euren gudu-ontzi ta itsasburu onenak bidaldu ebezen lan orretara.

Kai ta uri eder ori zan euren jomuga. Lezo'k jakin, eta prestakera oneek egin ebazan: bere ontziak kai aurrean ezarri, kaiako aoa kate lodiaz itzi, ta bere kaño onena itsasertzean jarri.

Iru bidar eraso eban ingelesak, eta irutan egin eban uts. Ez amor emon gura, alan be, ingeles amorratuak, eta laster azaldu ziran 66 gudu-ontzi andiagaz beste eun ontzi lagun eukezela, eta Vernon ta Ogle itsas-buru ospetsuen agindupean.

ERASOA

Agertu, ta su ta ke asi euren kaño guztakaz. 21 egun jardun eban orrelan suka gau ta egun, alertu barik. An ebillen, bitartean, gure Lezo txalupa batean batera ta bestera, danai laguntzen, danak bizkortzen.

Urpera joan ziran alan be, Lezo'ren itsasontziak, bata bestearen ondoren. Eta uri barruko gazteluan sartu zan bere izkillu ta gizonakaz. Bera atzeraka, ta arerioak aurreraka. Laster inguratu eban oneek uria itsasoz eta lurrez. Inguratu ta kañoaz apurtzen asi.

Zortzi egun luze ziraun erasoaldi gogorrak. Zaurituta egoan Lezo; metraillaz zulatu eutsen gaixoari bere anka ta bezo bakarrik. Ez zan alan be kikiltzen gure gizona, eta bere gizonak azkortzen jarraitu eban.

GARAIPENA

Urrengo egunean, ingelesak arresietara inguratu, euren zurubi luzeak ormetara bota, ta areen gora asi ziran 1.200 gizon. 250 gudari bakarrik egozan arresi gainetan. Gora ta bera, jo ta autsi..., iru ordutara luzatu eban adarra burruka gorriak.

Iru ordutara luzatu, ta zurubien adarra, azkenik, apurtu. Apurtu bazan apurtu..., an joan ziran igesi ingeles guztiak, euren zurubi, izkillu ta illotzak bertan-bera itzirik.

Ez eban orrelakorik uste ingeles arroak... Amaiseko urreki dirua eginda euren ordurako ingelesek, euren uste osoko garaipena ondo ospatu gurean. Oker jo eutsen baiña kukuak.

Oneek ziran diru bitxi orren irudiak: Vernon itsasburu arroa zutunik, eta Lezo gizaixoa aren oñetan belauniko, belauniko ta bere ezpata aketsa Vernori eskeñiz...

Esan bearrik be ez, ez zala diru ori azokara sekulan be azaldu!

URKIOLA'k

GUERE JOSUE (I)

AJURIAGERRA

NOR GARAN

Iñok ez daki nondik norakoak garan, baiña gaurko egunera arte bizirik gagoz.

Gure Erria, gure Aberri bakarra daukagu. «Euzkadi Euzkotarren Aberria». Ona emen iru itz sakon eta egi-egizkoak. Oneikaz Sabin'ek zabaldu euskuzan begiak eta arrezkero, itz oneik onarturik, Prantzi ta España'ren buztarriak kendu nairik gabiltz.

Ez dogu nai iñoren otseñak izaterik, Euzkadi guztian begiak zabaldu ditu Sabin'en dei onek.

Indartsuak garan lez, lau aizeetara be agertzen dogu Euzkadi dala euzkotarren aberria eta kondaira-gizon atzerritar jakintsuak be gure begira, nor garan, nondik nora azaldutakoak garan, nortzuk diran gure senideak, abar eta abar jakin nai dabe.

Ezagunak gara ludi guztian eta buru-austa aundiak sortu dauseguz gizon orrei.

EUSKEREAA

Euskerea da gure izkuntzea.

Gaizki itz egin arren, gaur beñik-bein oiñarritsu daukagula.

Erria begiak zabaldua da goan lez, ez dautsagu itziko ilten. Gaur arte bizirik ba'dago, osasuntsu ta alaitasuntsu euki dogu aurrerantzean.

Alegindu gaitezcan ba, euskerea gaillurtzen.

AMETSAK

Egun onetan amets itxartuak daukadaz neure kaskarrean eta barregarri izan nai ez, idazki onetan azaldu nairik nago.

Gure oiñarria euskerea dala ta, baten baiño gaiagotan entzun izan dot euskerea izan leitekela atsedan edo zeruko izkuntza.

Zergaitik «iñuskeri» ori?

Ba, euskereak ez daukalako obenik, euskal-izkuntzak ez daukalako tarte edo utsunerik, Dios, Deo, Deus eta abarrentzakorik, leku au Jaungoikoarentzako dago bakar-bakarrik, atsedan-tokian ez ei da zertan ibilli dioska, bada ez-bada be, inpernurako biderik billatu barik.

Ona emen ba, euskaldunok, aurreraturik atsedan-tokira joateko eguna eltzen danerako.

LATERRI-ARTEAN

Gaur, sinismen otzarekin artzen dira ludi onetan Jaungoikotasun eta eleizkizun-gaiak, baiña ametsak amets diran lez, jarrai dagioegun amairaiño.

Ondo baiño obeto dakigu ludi onetan gu baiño erri jakintsuagoak eta gogorragoak betirako suntsitu ta galduak izan dirala.

Guk be euki doguz gureak, esakerea dan lez, gaurko Portugal, España ta Prantzi arteko lur-zati mordozka baten bizi izan garala, baiña bultzaka-bultzaka, gaur gagozen lu-

rretaraiño bultzatuak izan gara, Prantzi ta España'ren bitartera.

ZERGAITIK EMEN?

Au gitxi ez ba'da, Santiago baten-baten aginduz Konpostela'ra joan zan.

Gure Jaungoikoa ete zan?

Olan ba'da, zergaitik ez ginduzan bialdu geu? An Galizi'ko lurrean uste dot baketsuago ta aldenduta egongo giñala, ala gure asaben gaiztakeri bategaitik, Jaungoikoaren zigorrez ete gagoz?

ASKATZAILLEA

Itun Zarrak diñon lez, Israeldarrak euren Jaungoiko Jahveh'ek oso zigor gogorrean zapalduta egon ziran.

Zergaitik?

Asaben obenakaitik. Eta gu bizi guztirako al gagoz zigortuta?

Ez orixe! Esakerea dan lez, Aitor'en semeak ei gara edo beste batzuk diñoenez Tubal'en sendikoak. Zurrumurru au zentzunezkoa ba'da, nik uste dot auxe dala egi bakarra: Gu euskaldun lez agertzen garala ludi osoan eta gaur be bizirik gagozela. Zer dala-ta? Goazen ia zer esaten dauskun Itun Zarrak.

(Jarraitzeko)

GORRIK

(KARAKAS'en idatzia)

Nortasun Zuzena

GRİÑAK?

Nortasuna, bakoitza bera izatea, bere berezitasuna da.

Nortasuna bi motatakua izan leiteke: Nortasun zuzen edo ona, eta nortasun txarra edo nortasunkeria.

Baten batek idatzi dau, norberaren griñak edo pasioak osotuten dabela nortasuna batez be.

Gure barruko indar bat diran griñak, berez ez dira ez onak ta ez txarrak. Geuk biurtzen doguz on edo txar geure biziteagaz.

Griña bako edo griña epeldun gizona, tentela da, ezertarako be ez da.

Griñak biurtu leitekez txar edo on.

Jakitun batek diño: griñak on izaten dirala azpiratuten doguzanean.

MENPEAN

Begira zelako nortasun aundi aundi eukan S. Paulo Apostoluak. Baiña zergaitik?, begira berak diñona eskutitz batean: «Neure gorputza zigortuaz gainduten dot, besteai ebanjelioa iragarten dautsedan bitartean, neu galdu ez naiten.»

EREDU BAT

Griña aundidun gizona S. Paulo, eta ori bere griña bizi-biziak azpi-

ratu ta bide oneruntz biurtu zitu-
tualako.

Orra or nortasun on ta aundikoaren eredu bat.

Bere griña aundiak, nortasun aundia sortu eben beragan.

Griña edo barruko indar orrek gauza aundietarako erabilili ebazan.

Argi ikusten da beragan, nortasuna geien bat griñak biribilduten dabela.

* * *

NORTASUNKERIA

Ba-da bai beste sasi-nortasuna obeto esanaz, nortasunkeria, au bere griñak eragiña, baiña azpiratu-bageak.

Oraingoan, ortik zear, batez bere gazteai entzuten jake: Nik neure bizia bizi nai dot: Lengo tabú guztiak kendu bear ditut.

Baiña zertarako? Ezitze onari, morai ta etika zuzenari uko egin, griña txar guztiak ur ateak zabaldu, ur arkaren ormak birrindu ta nortasunkeriari bideak zabalduteko. Or doaz arro-arro mundu obeago bat egiten diarduela esanez.

Benetako nortasuna griña azpiratuak sortzen dabe, argi dagonez.

* * *

ZURTASUNAZ

Gure griñak azpitatu bear doguz, baiña ez bakarrik ori: griña azpiratuak zurtasunez ta zentzunez eraili bear doguz, gure nortasuna aundia izan arren, zurtasun eta zentzun bage erabilten ba'dogu, geie-gikerian jausi gindekez.

Ainbat gizon ezagutu doguz edes-tian zear nortasun aundiko gizonak, baina nortasun ori zentzunez ta zurtasunez erabilili ez ebelako gogorkerian jausi ziran, milla fazismo motatan.

Erlejioa bera be zurtasunaz ta zentzunaz erabilten ez ba'da, fanatismo edo itsutasunera eltzen da, erlejioari kalte aundiak egiñaz.

* * *

ALEGIÑAK

Gure errian izan ditugu benetako nortasun aundia izan dabenak, eta aldi larri onetan gure alegin guztiak uneetan eta gazteetan benetako nortasun zur eta zentzunduna ereiteko izan bear dabe, eta orrela bakarrik benetako mundu obe bat sortuko dogu gure erri maite onetan.

ZAR-GAZTE

Oldozmen

Ikusten dot nik gure erri
sidismenean epeldurik
lurreko naiez aseturik
biotz barrua izotzurik.

* * *

Beti Euzkadi'n euzki gutxi,
mendi zelaitan bai orlegi,
Baiña eguzki ederrago
maitetasuna zala nausi

* * *

Maitasunaren goi-iturri
Kristau siñiste zan nagusi,
maitasun ori otzituaz
dana biurtzen leitza gorri

* * *

Mendi ta zelai, urietan,
naiz ta sarturik auts azpian,
egunen baten Kristau fede
biztuko dala gure errian,

Itxaropen dot biotzean
egun onetan bizi-bizi,
dakidalako ziur-ziur
illezkor dala gure erri

* * *

Askok fedea galdu dabe
baiña txikitat artu eben,
bere sustraia biotz barrun
oraindik dago bizi lerdan.

* * *

Arrantzaleak urriñetan
egastun balek arraunetan,
arpoi zorrotzaz il-gurean
zori ez bardin, asko-askotan
arpoi zorrotza batzuetan
sartzen da biotz biotzean
ordun balea ur gainean
bare-bare da, ba-da il zan.

Beste batzutan arpoi zorrotz
barrurairioko ez da sartzen,
igesi bale zaurituak
baiña geldika ilten, ilten.

* * *

Bardin gureak Kriston arpoi
barruen dabe txikitatik
bere ekintzaz geldi-geldi
urtengo dala izotzetik.

* * *

Orrela barriz euskal erri,
izango dala Jainko-zale
ostera gure gaztedia
maitasunean irabazle.

* * *

Eroapena izan daigun
siñistedunok otoi ta lan,
putz egin danok fedeari
biztuko dala!!! Eta zelan!!!

ZAR-GAZTE

MINTZO

Euzko gizadi miña mintzatzen.
Barneko garra dario.
Gogo ta gorputza lertu jakoz.
Zanak odola erio.

Euskaldunaren gizontasuna
guzur, iraiñez mindu zan,
euskaldun egi-zaletasuna
laiño zapaldua izan zan.

Guzur, iraiñak, gogorkeriak,
berez, mintzatzen ziran,
gorrotoa besterik ez egon
Euzkadiren jira-biran.

Bildots errugabe ziñalarik,
bizia ostu eutsuen,
goitik ta bera egurrez mindu
goikeriaren barruen.

Orduezkero, kartzelak mintzo,
Euzko negarrak karrazi,
ama alargunduek otoika,
senar illak ezin etsi.

Euzkadi'k bere bizia galdu.
Lengo Lagi-Zarra mintzo.
Beti izan eban askatasuna
zizpuruz ta negar antzo.

Mutil gazteak aurrerantzian,
urrutira doaz otsein,
biotz barrua karraziz dabil
amak mindurik negar ein.

Erbestean semea soldadu,
kantari ari da illun,
urrundik asmetan Aberria,
barruan biotza itun.

Amorruz dauka barrua lertzen.
Ez dau esan nai biraurik.
Etorriko da bizi eziña,
egi berak eskaturik.

Euzkadiko arriak mintzatzen
gudarik zakarrenean,
etxeak bera, erriak ausi,
euzkoen ondamenen.

Euzko gaztedi eta gizadi,
odola dabil karraziz,
Euzkadi'ren lurra gorritu zan
erri-bizia isuriz.

Euskaldun biotzak negar mintzo,
Gernika dakus garretan,
gizon batzuen gorrotoa zan
inpernutarreen lanetan.

Mintzo negarra itzali nai dut,
abes ba'nei alleluia,
euskaldunen zuzentasunak, noiz,
sorturen egi argia...?

EGIEDER

EUSKERA ZALEAK

IPUIN - SARIKETEAK

IDAZLEAK BEAR DIRA

Euskalduna berba-gizona izan da eta orregaitik, bear ba'da, ez da idazten zalea izan.

Baiña idazleak bear doguz. Gaur egun idazkiak indar aundia dauke eta jakintza idatzia ez dauken erriak ez dabe aurrerapen aundirik egingo.

* * *

NONDIK ASI

Idazten ikasteko, jakiña, gairik errezenetatik asi bear gintzakez.

Baiña zeintzuk dira gairik errezenak?

Gaiari berari begitu ezker, ipuiña da errezena, batez be aria ondo eroateko lan gitxi bear daualako. Beste tankera batzutan burutapenak egokitu egin bear dira, baiña ipuiñak berezko ari-egokitasuna dauka.

Idazkereari begitu ezker, oster, ez da ipuiña idaz-tankerarik errezena.

* * *

IPUIÑEN MOTAK ETA KONDAIREA

Mota bitako ipuiñak gogoratu geinkez, batez be. Edestiak eta alegiak.

Edestiak, ain ugariak gure Errian, irudimenezko jazokizuna edesten dabe.

Alegiak, abere edo piztien arteko jazoerak, gero gizonentzat irakatsia aterateko. Alegi oneik India'n sortuak doguz, Andik Persia'ra, arabiarrakana eta X Alfontso'ren bidez (Kalila eta Dimna bere gaztaroko liburu) España'ra sartu ziran. Eta Persia bide dala Grezia'ra (emen Esopo) eta Erroma'ra (emen Fedro). India'tik sartu zan Europa'ra be idaz-tankera ori. Gogoratu «fablieaux» edo «Roman de la Rose» edo «Roman de Renard» edo «Saga»'k...

* * *

EUSKALERRIAN

Euskalerria, agozko naiz idatzizko elertian, oso ipuinzalea izan da eta gaurko euskaldunak be gogoz irakurten dabez ipuiñak, batez be, komik'etan sartuak, gaztetxuen artean.

Eta alegiai begira, ezin itzi daikeguz Mikel Zarate'ren Ipuin Mingotsak gogoratu barik. Idazle onek egokiro gaurkotu ta geuretu ditu alegi zarrak liburu orretan.

* * *

IPUIN-SARIKETEAK

Orra or ba, zergaitik eratu dauan EUSKERA ZALEAK taldeak sariketa au eta aurrerantzean be eratzeko ustea zergaitik dauan: Idazle barriak sortzeko, lendik idazle diranai lan onetarako gogoia geitzeko, gure ipuin-idazketa indartzeko, gure idazleak irakurtera zaletzeko (ipuiña da, izan be, errezen irakurten dan gaia).


ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zure matea gurean



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA